



1 FITXA: ... eta puntu!!

Gaia	Helburu zehatzak	Denbora	Jarduera mota
Kausa bat: sinbolo bat	1. Eguneroko bizitzan hizkuntza sinbolikoaren garrantzia identifikatzea 2. Mugimendu sozial desberdinen sinbologia eta esanahiak ezagutzea eta eztabaidatzea . 3. Indarkeria sexistaren aurka sortutako sinbologia ezagutzea eta aztertzea .	Gutxienez: 40 minutu. Gehienez: ordu bat eta 30 minutu.	- Azalpena - Eztabaida - Material grafikoa erabiltzea
Xede-taldea	Lantzeko oinarrizko kontzeptuak	Beharrak	
15 -19 urteko neska-mutilentzat.	- Hizkuntza sinbolikoa giza pentsamenduaren erregistro garrantzitsua da, eta metaforak sor ditzake pertsonak kausa, jokamolde, ekintza eta jarrerekin bat egiteko. - Mugimendu sozialek sinboloak sortzen dituzte, erraz ezagutzekoak eta euren kontzeptuak edo aldarrikapenak erakusten dituztenak. Emakumeenganako indarkeriaren	➔ Sinboloen irudiak neurri handian, talde guztiak ikus ditzaten edota neurri txikian, partaide bakoitzak erabiltzeko moduan.	

aurkako mugimenduak ere sinboloak sortu izan ditu historian.

- **Puntu Lila** sinbolo berria da, indarkeria sexistaren aurkako jarrera aktiboa eta konpromisoa adierazteko.

Prozedura

- Eguneroko bizitzako eta mugimendu sozialetako hainbat sinbolo erakutsiko ditugu (ikus fitxaren 1 edukia) eta partehartzaileei galdetu egingo zaie ea ezagutzen dituzten eta zer egin edo pentsatzen duten ikusten dituztenean. [20 minutu]

-Indarkeriaren aurka erabiltzen diren sinboloak azalduko zaizkie, (ikus fitxaren 1 edukia) eta Puntu Lila aurkeztuko zaie, honakoak lortu nahi dituen baliabide berria:

- ➔ "Puntu Lila" ikusten dugun bakoitzean, indarkeria sexista ezabatzeko borroka aurrera doala jakitea.
- ➔ Sinbolo eta ikono hori era estrategikoan erabiltzea, aliantzak eta konpromisoak sortuz.
- ➔ Indarkeria sexistaren aurkako borrokan pertsonen, taldeen eta entitateen lana aitortzea.
- ➔ "Puntu Lila" ikusi ahal izatea normalean maskulinoak diren eremuetan.

[20 minutu]

Aldaerak

- ➔ Txartelak erabil daitezke, sinbolo desberdinekin. Txartel batzuk zuri utz ditzakegu, partaideek gogoratzen edo erabiltzen dituzten sinboloak bertan marrazteko eta gainerakoei euren esanahia azaltzeko.
- ➔ Lan eremuan horrelakorik balego, sinboloak aurkitzeko eska dezakegu (adibidez, tokienak, zerbait egitekoak- sarrera, irteera, arriskua-)euren esanahia eztabaida dezaten.

- ➔ Astia izanez gero, partekatu egin ditzakete sinboloei buruzko istorioak, edota eska dezakegu partaideek istorioak aurkitzea eta taldearekin partekatzea.

Dinamika hobeto ateratzeko oharrak

Gaia apurka-apurka garatu: lehenengo, eguneroko sinboloak erabili (a bildua, stop-a, komunetako ikonoak...), ondoren, mugimendu sozialei lotutakoak (GTBL mugimenduaren ostadarraren bandera, ekologisten berdea...), eta, azkenik, borroka feministari eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako borrokari lotutakoak, (kolore morea, begizta zuria, Puntu Lila...)

Xede-taldea	Landu beharreko oinarrizko kontzeptuak	Beharrak
<p>20-25 urteko neska-mutilentzat.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Sexismoa hedabideetan, batez ere irudietan. - Sexismoaren normalizazioa, hedabideetan nagusi diren sinboloen eta mezuen bitartez. - Indarkeria sinbolikoa eraikitzea, betiko rola zalantzan jartzen ez duena, eta desberdintasun estrukturala eta subjektiboa eusten duena. - Emakumeenganako indarkeriaren aurkako ordezko sinboloak eta mezuak sortzeko beharra, erraz ezagutzekoak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Guk emandako irudiak eta hemen aurki ditzakezunak: http://es.wordpress.com/tag/sexismo/ Emakumeak eta gizonak eta alderantziz (politikan) http://sexismopublicitario.blogspot.com/2009/04/todas-las-imagenes-de-sexismo.html - Ordenadore eramangarria, kanoia eta bestelako euskarria, Isabel Coixeten laburmetraia proiektatzeko "la mujer: cosa de hombres" izenekoa. Interneten eta Youtuben duzu. - Irakurketa osagarriak: Iragarkietako sexismoa http://www.ugr.es/~educasi/3-3-3.htm

		Crepúsculo: maitasun arriskutsua edo maitasunez mozorrotutako arriskua?
--	--	---

<http://minoviomecontrola.blogspot.com>

Prozedura

- "La mujer: cosa de hombres" izeneko dokumentala proiektatu. Dokumentala 27 minutukoa da. Astirik ez baduzu, hasierako 10-15 minutu ikus dezakezue.
- Dokumentala ikusi ondoren, komentarioen txanda ireki dezakezu, partaideek euren iritzia emateko. Erabil ditzakezun galdera batzuk fitxaren 2 edukian dituzu.
- Amaitzeko, hausnartu egin dezakezu indarkeria sinbolikoari buruz eta emakumeenganako indarkeriaren aurka gaudela adierazteko irudi eta mezu errazak sortzearen beharrari buruz.

Aldaerak

- ➔ Dokumentala ikusteko baliabide teknikorik ez baduzu, 3 edukian dituzu irudi batzuk, emakumeen edo pertsonai femeninoen irudiak. 2 edukiko galderak egokituta daude, horrela lan egin nahi baduzu ere.
- ➔ Astirik baduzu eta partaide nahikorik baduzu, taldea banatu (5-7 lagun taldeko), 2 edukiaren galderak eztabaidatzeko, ondoren talde handian iritzia partekatzeko.
- ➔ Eskatu partaideei arreta eman dieten irudiak bilatzeko, zer eragiten dieten jakiteko, non aurkitu dituzten, eta zer uste duten esan nahi dutela.

Dinamika hobeto ateratzeko oharrak

Isabel Coixeten lanak errepasatu egiten du nola telebistan, batez ere iragarkietan, agertu izan den emakumea gizonaren menpean eta gizonak esaten duena egiten. Horrelako irudiak bestelako irudiekin nahasten ditu: bikotekideek erahildako emakumeen hilketen egungo berriekin. Zuzenean lotzen ditu, alde batetik, kultura misoginoa, emakumeak gizonen beharren esanetara eta inguru guztia mezu horren ondasuna eta naturalitatea sustatzen, eta, bestetik, kultura misoginoko indarkeria sinbolikoa fisikoa ere bihurtu dela. Argudio gehiago izan dezazun, Samar Tahar idazlearen honako artikulua duzu. <http://donescompromeses.blogspot.com/2007/12/la-violencia-simblica.html>; Emakumenderen honako eskuliburua ere irakur dezakezu: Zeri buruz ari da Begira iragarkietako sexismoaz ari denean?

Neska-mutilen batek esaten badu argudioa gehiegizkoa dela edo "horiek antzinako gauzak direla, orain ez dela horrelakorik gertatzen" esaten badu, *Crepúsculos* buruzko irakurketa aholkatu, orain dela gutxiko filma.

Edonola ere, eztabaidak bi helburu ditu: harremanetan aldaketak egiten jarraitzea (bikoteetan, hezkuntzan, aisialdiko harremanetan) eta arlo sinbolikoan ere aldaketak egitea. Horrexegatik da garrantzitsua sinboloak sortzea (hasteko), emakumearenganako indarkeriaren aurkako borrokan identifikatzeko. Hortxe sartu ahal izango dituzu hurrengo fitxaren edukiak.